

COCO FUSCO

Proposamen ausart bat sortzen ari den gizarte globaleko *live artistak*ⁱ antolatzaileentzat eta sustatzaileentzat zama bat izatea eragozteko eta publikoarentzat onuragarri bilakatzeko

Jonathan Swiften omenez

Atsekabezko ezustea izaten da Britainia Handian kultur ekintzetan edota nazio arteko erakusleiho izaten diren erakusketetan barrena dabilzanentzat, noiz eta ere munduko hiri handienetako kaleetan, galerietan edota erakusketetan barrena doazenean erasotzen baitituzte hizkera zatarrak, keinu itsusiek eta, esan beharra dago, artistaren izena bereganatzeko lotsarik ez duten begiratu txarreko pertsonak. "Artista" horiek, horrenbestez dotorezia eta edertasun obrak sortzeko gai ez eta, patologia izengabe batek bultzaturik, beharturik daude noski beren denbora gehiena laguntza eske ematera, beren fantasia lotsagarriak besteoi adierazteko manera bereziaren alde. "Artista" horien erasoak iraun egiten du beren burugogorkeriaren indarrari eta gizarteko mailarik apalenetan sortzen duten itsumenari esker, ez laguntza benetakoei esker. Gure baitako ulerbera eta xaloenak kutsaturik dauzkate, eta horrela beren zaborra, kiratsa darion arren, atzerrian ere erakusteko gonbiteak jasotzen dituzte inoiz.

Uste dut alderdi guztiak ados direla ezen *live artist* delakoan kopuru harrigarria, gehienetan arte garaikideko ekintzarik bazterrenekoetatik bildutakoa, sarri burokrata lanpetu bat edo besteren atentzioa pizteko borrokan, zinez eragozpen handi bat dela, gure elite teknokraten erosotasunerako birgaitu berri diren hirigune gutxi asko osasungarrituotan; eta langabetuen artean ordena jartzeko gure ongizate estatuaren porrot handiaren erakusle ernegagarri eta salatari fisikoa. Horiek horrela, *live artistak* kultura industria transnazionala sustengatzen duen zerbitzu klaseko partaide jator eta probetxugarri bilakatzeko metodo zentzuzko, merke eta erraz bat aurki baleza norbaitek, horrenbeste lagunduko lituzke halakoak gobernu eta herritar egokiak, hain ere merezimendu garbiz non urteko gizon edo emakume izendatzea zor bailitzaioke.

Nire asmoa, ordea, urrun ere urrun dago gaur egun arrunt eta erasokor diren *live artisten* karietara soilik mugatua izatetik: askoz ere hedapen handiagokoa da, barne hartuko baitu, oso-osorik, mendearen hasieraz geroztik zentzugabeko ekintzotarako jokaleku, aitortza eta dirua eskatuaz arte munduko jende jakintsu eta zentzuzkoa asaldatu duten *live artist* guztien panteoia. Izan ere, tamalez egia baita arte molde hori sortu zenez geroztik ez dela une bat bera ere egon haren ekintzaileek baten bat, propio gehientsuetan, eraso gaberik.

Niri dagokidanez, urte luzeetan kontu garrantzitsu hau hausnartzeari emana bainaiz, *live art* delakoaren gorrotatzaile Jesse Helms, Robert Hughes edo Estatu Batuetako Auzitegi Gorenaren planak luzaz aztertutik, beti kausitu ditut egitasmoon kalkuluak nabarmen-nabarmen huts eginak. Jakina, *live artist* batek bere ibilbidearen hasieran aski du arte erakundeek edo udalek orkestra edo ballet lizunki, barka, itsuski handietan beren dirutza gehienak xahutu ondoren karitatez banatu ohi dituzten mixeriekin; bada, hasiera nolabait esateko merke horixe proposatzen dut nik, hain zuzen, haien kargu egiteko, halako moldez non, gobernuarentzat zama bat izan beharrean, edo bizi guztian diru

laguntza eske ibili, aitzitik, berenetik lagunduko baitute ehunka, agian milaka jendeen osasuna eta ongi izatea.

Beste abantaila handi bat ere badu, alabaina, nire egitasmoak, hots, arte kritiko eta erakusleak libre utziko dituela, inoiz goraiatu izan zituzten *live artiste* sinbolikoki lepoa moztetik, teknokratak estuki beharturik egoten baitira bizigiro arau edo egitasmo gabea utzi, eta munduko populazioa enpresa multinazionalen etekinik handiena sortarazten duten makina sakonki programatu eta amets txepelen egileekiko besarkada eternal batean lotzera. Gerra Hotza garaitua izan den une honetan, estatu sozialismoa lur azaletik ia guztiz ezabatua izan delarik, mundu librearen araugileek ez dute behar handirik, egia esan, ilusiorik sustatzeko, norberaren bakantasun erosi edo saldu ez daitekeena irudikatzen duten adierazpen formek gizartean edo arte munduan lekurik ote daukaten.

Mundu osoan bizirik diren *live artistak* 5.000, eta ez gehiago, direla uste ohi da; horietatik kalkulatzen ahal da 2.000 besterik ez direla nola edo hala ezagunak kultur giroetan; zenbaki horretatik, 1.000 bat kentzen ditut, galeria pribatuentzat inor iraintzen ez duten obra isil eta taxuzkoak egin eta horien gaineko argazkiak edo kopiak saltzen dituztenak; nahiz eta beharbada ez diren horrenbeste gaizkile izango, 1.000 bat exhibizionista xeble, ilargitar edo disidentetzat hartuak izango ez direnak eta bertako agintariak bazter utziak izango ez direnak gelditzen dira. Beste 300 bat kenduko ditut oraindik, aurten inora ezer erakustera joateko gonbiterik izan ez dutenak, edo lanean istripuren batek zauritu eta orain-oraingoz deusetarako gauza ez direnak. Beraz, aurre egin beharreko 700 bat eskandaluzale grinatu gelditzen dira. Auzia, beraz, zera da, kopuru hori nola kontrolatu eta bere botere karismatikoa nola gutxitu, kostu edo aztorapen handirik gabe. Orain arte proposaturiko metodo guztiek huts egin dute.

Huts egin dute, alde batera, jokamolde burugabeetan nabarmentzeak nolabaiteko ospea sortzen duelako, ugazaba, guraso, ezkontide edo politikariei errietan ematea atsegingo luketen, baina komeni ez zaien edo halakorik egiteko adorarik ez daukaten masa handien artean; eta publikoaren atentzioa erakartzen duen orok, kalitate mailaz at, hedabideen mirespen moduko bat dakarrenez, zoritxarrez kulturaren historiaren orrietan katalogatu behar izaten da. Horrela uler daiteke, adibidez, zergatik arima herratu batzuek *performance art* delakoaren sortzailatzat hartua duten Alfred Jarry frantsesak ziurtatu zuen bere lekua azken mendearen amaierako historian bere *Ubu Roi* hura zabaldurik gorotza esateko hitz erdeinagarrienaren aldagai bat erabilita. Horrela uler daiteke, ulertu ere, zergatik batzuek miresten duten Lenny Bruce komediante harrigarri burugorrotatzailea, prestutasunaren muga konstituzionalak zalantzan jarri zituena, zazpi hitz zikin haiek jende aurrean haizatzeko grina gaiztoaren bitartez, ondorioz bere irratsaioak Ameriketako irratietan gaur arte ezin igor daitezkeelarik. Halaber, horrek bide eman zion Carolee Scheemani 70eko hamarkadan bere karrera arnasberritzeko genitalak agiri feminista batekin igurtziz; Vito Acconci artista maisuaren mailara goratzeko museo baten lurzoruan masturbatuz; Barbara Smithi galeria batean gizasemeak berarekin larrua jotzera gonbidatzeko prostituzioagatik atxilotua izan gabe; David Hammons Richard Serraren eskultura baten gainean gerru egiteko, ondoren atxilotua izan eta MacArthur Genius izeneko saria irabazirik; Karen Finleyri aldizkari handietako azala okupatzeko bere biluztasuna txokolatetz estaliaz. Ameriketara gertatutako adibide soil batzuk dira horiek, bazter utzirik herrialde sozialistetan

estatuaren kultur hegemonia zalantzan jarri izanagatik zentsura pairatu duten *live artisten* lorpenak. Adibideak ugari dira, irakurle maiteok, baina esango nuke zerrenda gehiegi luzatzea zilegitasun gehiago ematea litzatekeela praktika horri, zeina gure atentzioa merezi duen bakar-bakarrik memoria historikotik ezabatzeko modurik egokiena aukeratzeko orduan. Etorkizuneko eskulangile malguak eta kultur kontsumitzaileek ez dute ezertarako jakinminik izan behar ea nola alferrik gal dezaketen beren denbora lotsagabekerietan eta bitxikerietan etxeko aisialdi zentro batean dirutzak xahutu gabe.

Live art delakoaren oldarrari aurre egiteko orain arteko saioek huts egin dute halaber sustatzaile liberal santujale horiek bezala saiatuta ere ezin direlako *live art* mota guztiztiak probetxuzko bihurtu arrisku handikotzat edo alferrikakotzat jotzen den populazio sektoreentzat. Nola daiteke, esate baterako, inork Holly Hughes safikoa bezalako muturzikin bati ordaintzea tratu txarrak jasan dituzten emazteak beren zanpatzaileen menpekotasun isiletik atera daitezen konbentzitzeko? Ez al da galbidean ibiltzea Tim Miller, bere lotsakizunak agerian jarri gabe deus egiten ez dakiena, gonbidatzea presoentzako tailer bat ematera? Sustatzaile horien senide zertxobait kontserbadoreagoei, aire libreko arte jaialdi erraldoiak antolatzen dituztenean hiriguneak arnasbizitzeko asmoz, era horretan ondasun higiezin inbertsoreak, saltokien negozioak edo ahalmen handiko kontsumitzaileak erakarriaz, ez zaie burutik pasa ere egiten *live artistekin* elkartzea, eta horren ordez nahiago dute teknologia aurreratuko ikuskizun edukirik gabeko baina ederrak jartzea, Ozeko Aztiaren anaia siamdarraren antzeko *live artisten* nozio bat gogorarazirik.

Arte merkatarik askok baieztatu didate ezen transgresio horiek egiten dituzten gehienak ziurrenik ezingo direla baliozko ezer izatera iritsi telekomunikazioen eta industria elektronikoen interesetan gero eta korapilatuago dagoen arte munduaren barnean; izan ere, Internet gainezka dago hitz eta esaldi lizunez, erotismoz eta satira politikoz, eta horietako asko, Ameriketara behintzat, Starr Txostenean aurki daitezke.

Hala, beraz, neure gogoetak proposatuko ditut orain apalki, espero baitut ez dutela eragozpenik txikienerako biderik ere utziko. Amerikar *live artist* jakintsu batzuek ziurtatzen didatenez, lanik gabeko antzezle gazte eta osasuntsu bat erraz eroriko da bere burua jende aurrean era probokatzaile batean erakusteko eskaintzaren aurrean.

Hala, bada, apaltasunez jendaurrean aztergai plazaratzen dut nire proposamena, alegia mundu zabalean kalkulatu ditugun 700 *live artist* desbideratu horietatik, 200 gorde daitezela arte ongile eta goi mailako funtzionario sotil doilorrentzako museo erakusketa eskusiboen inaugurazioen osteko denborapasa gisa; gelditzen diren 500 gainerakoak izan daitezela aldi bateko lanetarako (jakina, Londresen zabaldu berria den *live arten* inguruko agentziak kudeaturik), goi mailako jende dirudunarentzat; eta ikusteko zein ikasteko arte forma bitxi horretako zale balizko nahiz benetakoek jendaurrean zigor ditzatela. Hebainduak izan daitezela ipurdian, beti ere gris edo urdin kolore hitsezko barrengo jantziez itxuroski estalirik, zurezko edo plastikozko makilatxoak erabiliz, ez behinolako esku zartak, egintza horretatik erator litekeen atsegin erotiko oro bazter utzia izan dadin. Hebainketa horiek bakarrik igande eta jai egunetan izan daitezela, bestela lan beharkizunak betetzeagatik eragozpen izango luketen jende prestuek errittoa goza dezaten.

Begiz jo dudanez, batez beste, bere karreraren hasieran *live artist* batek hamabi bat orduko zartadaldia jasan dezake, non eta aurrez ez duen Los Angelesen ohikoak diren sadomasokismoari buruzko tailer horietakoren batean parte hartu, kasu horretan gauza izango baita 24 ordu eta gehiagoko hebainaldia aise pairatzeko txintik atera gabe.

Nazio arteko ekinaldi hau abiarazteko behar den antolamendu eta sustapen ahalegina, jakina, zerga bidez garesti samarra izango da antolatzaileentzat, zeinek, aurrez karrera guztia *live artistek* sortutako ezbaiak kudeatzen eman dutenez gero, ipurdikoen lehen txandan izateko eskubidea irabazia baitute noski.

Live artisten okelaren sasoia urte guztian izango da, baina beteagoan udaberri eta uda giroko hilabeteetan, eguraldia gozoagoa izaten baita astinaldi horiek egingo diren plaza eta lorategietara irteteko.

Dagoeneko kalkulatu dut hebainduak mantentzeko eta ipur masaila minberatuak sendatzeko ukenduaren kostua urteko 3.000 dolar inguru dela, zulaketak barne; eta ez dut uste gisako den ezein jaunek ez andrek batere kexurik lukeenik dolar bat edo bi ordaintzeko hogeit hamar minutuko zigorraldi baten trukean, segurki luzaz merkeagoa baita hori osasun zentro bateko egunpasa edo psikoterapiako saio bat baino. Horrenbestez, zigortzaileek beren frustrazioak kanporatuko lituzkete, eta aldi berean zerbitzu publiko estimagarria eman; ikuskizuna kudeatuko luketen burokratak, berriz, urte bat edo biren buruan irabaziren bat ateratzeko moduan egongo lirateke.

Esku-eutsiago direnek astinaldia lagunen batekin erdi bana egitea nahiago dezakete, eta horrela *live artistak* jendaurrean zigortzeko ikuskizunak egokiera ederra izan daiteke adiskide berriak egin eta, nork jakin, andregai edo senargaia hartzeko.

Pertsona prestu batek, bere herriaren maitale fin batek, zeinaren bertuteak estimu handitan baititut, gogo onez jardun du oraindik orain nirekin gai honetaz gogoetan, nire egitasmoari beste itzuli dotore bat eman beharrez. Gizarte globaleko jaun eta andre printzipal askok, zioen, haurrak egurtzeko ohitura zaharra aspaldi kendua zaienez gizarte ongintzako erakunde nahiz legelari ugarien indarrez, sufritu egiten dute beren oinordekoak astintzeko aukera ezagatik. Ez litzateke ideia txarra *live artist* gazteen gorputzak eskaintzea, hamabi eta hogeita bost urte bitarteko sasoian hortxe; hainbeste baitira, herrialde guztietan, goseak ia hilean daudenak oraintxe, beren artea agertzeko leku eskasiaz; jakina, gurasoen baimenaz beti ere hamazortzi urtez beherakoak baldin badira, edo bestela antolatzailearenaz. Hain adiskide bikain eta hain abertzale merezimenduz bete horrenganako begirune guztiz, ezin naiz, hala ere, haren burubidearekin bat etorri; ezen, nire amerikar adiskideek garbi utzi didate *live artist* gazte gehienek, inguruan haur txiki bat ikusiz gero, ezingo luketela inolaz ere haurrok seduzitu eta lanbide koldar horretara ekartzeko grina lotu, eta amaigabeko hitzjarioan hasiko liratekeela hainbeste norbanakoen ukimenak sortarazten duen atseginaz, ukimenaren zer-nolakoa kontuan izan gabe, eta noski haurrak izaki arras eraginerrazak direnez, sinetsi egingo lukete dena eta hasiko lirateke jarrera berdina hartu nahian eta lan molde berdina hartzen bukatu. Azkenik, litekeena da izaki guztiz tentel batzuk, jende aurreko astinaldiotan haurrak ikusirik, jarduera hori zentsuratzeko prest egotea (arrazoi zuzenik batere gabe, noski), krudeltasunaren mugatik hurbil samar

dagoelakoan; eta horixe izan da beti nirekiko, aitor dezadan, edozein egitasmoren aurkako egozpenik indartsuena, ederrena izanik ere asmoa.

Etsipenera emanak diren pertsona batzuk oso kezkatuak daude ikusirik zenbat eta zenbat *live artist* txiro datzan zaharturik, gaixorik edo elbarri, maiz emakumeak (izan ere, Ameriketako *body art* delakoan aitzindaritzat jo izan diren gizasemeek beren perbertsioari etekin izugarria atera baitiote eskultore gisa); eta arren eskatu didate saia nadila pentsatzen ea nola joka daitekeen munduari traba hain larri hori arintzeko. Ni ez nau, ordea, batere arranguratzeko kontu horrek, zeren guztiz gauza jakina baita egunean-egunean hiltzen eta usteltzen ari direla halakoak, hotzez eta gizarte segurantzako laguntza ezaz, aski martxa ederrean, espero izatekoa denerako. *Live artist*etan, heldu jendea, berriz, baldintza orobat itxaropentsutan daude horiek ere. Ezin dute lanik lortu, eta erakustoki faltaz ia akabuan daude, halako punturaino non, inoiz mirakuloski beren lana erakustera gonbidatzen badituzte, ez baitute obra bat bera ere erakusteko; horrenbestez, bada, etorkizuneko gaitzetatik aurki libratzeko bide egokian daude mundua eta berak.

Itzuliguru luzeegitan ibili bainaiz, lotu nakion berriro hariari. Uste dut bistakoak eta asko direla egin dudako proposamenaren abantailak, eta garrantzirik handienekoak guztiak.

Lehenengo eta behin: biziki gutxiagotuko lirakeke *live art* erakusketen ekoizpena finantzatu eta lokalak mantentzeko beharrak. Antzerki argitan edo proiektiotan, kea sortzeko makinatan edo soinu bandatan, zer esanik ez eserlekuetako bigungarritan dirutza handiak xahutu ordez, antolatzaileek ikuskari soil, onbideratzaile eta kostuak estaltzeko adinakoa izango lukete, eta garai bateko agertoki-aurreak eta galerietako guneak erabili ahal izango lituzkete ipurdian astindutakoen samaldak biltzeko.

Bigarrenik: *live artistek* behingoz gizartearentzako probetxuzko agerkizun bat izango lukete jendearen atentzioa berenganatzeko grina konpultsiboa asetze aldera, kezkatzen ibili gabe zer dohain edo prestakuntza ote duten: izan ere, dohaina mugatua da mundu honetan, eta prestakuntza garestia sarritan.

Hirugarrenik: kontuan harturik bostehun *live artisten* mantenua ezin dela jo 3.000 dolarrez behera urtean, neurtu beharra dago kostu hori ikusiz egindako proposamenaren onura soziala, eragindako ariketa fisiko osasungarria, eta jendeen haserre eta frustrazio aurrezpena, azkenik astindu ahal izango bailituzkete herri gordailuak hustu eta era guztietako berekoikeria onartezin garestiak hedatu dituzten lotsagabe sumingarriok; eta, azkenik, aintzat hartzekoa litzateke merkatu ikertzaileek eta soziologoek izango luketen aukera, aspaldi ezin jakinik baitabilta nor izan ote den *live art* delakoak hain sakonki iraindua, egunkarrietan dirua gastatuarazteraino, *live artist* lohi, arrunt eta lotsagabeen gaineko istorioak argitara zitzaten. Neronen itxaropena da, gainera, *live art* jaramonik egin ordez haren izateaz kezu diren herritar haserretuen samaldak mundu zabaleko ikuskizun horietan ikusteak uxatu egingo duela artisten artean ere hain zabaldurik den ideia hori, alegia jende horiek ez direla existitzen, edota gehienaz ere gure planetako arima gaixo guztiak hil bitartearainoko eskulabotzapeko lan batera eta kontsumoko aisialdira eskulotzeko, eta horrela populazioaren bizitza publikoa deusezteko, ahaleginean bat egin duten bazter nahasle, ugazaba eta politikarien familiartekoak edo

adiskideak direla. Izanez ere, susmoa dut nazio arteko astinaldietarako lehen lerroko bolondres aterako direla, hain zuzen ere, halako jende haserreturik benetan ez dagoenaz guztiz sinetsirik dauden *live artistak*, eta beraz munduaren aurrean ipur masailak erakusten dituztenean batere aztoramendurik izateko beldurrik ez daukatenak.

Ez zait bururatzen ezein ere aitzakia jar lekiokkeenik proposamen honi, non eta norbaitek ez duen nire kontra ekarri nahi ezen *live artisten* kopurua tarte laburrean gutxiagotuko dela horrenbestez, ipurdiak astintzeko aukera gutxiago utzirik. Gogo onez onartzen dut hala dela, eta horixe izan da, hain zuzen, egitasmo hau munduari eskaintzearen arrazoi eta xede nagusietariko bat. Nahi nuke irakurlea ohar dadila ezen *live art* den adierazpide guztiz gogaikarriarentzat bakarrik kalkulatu dudala konponbide hau, eta ez, inolaz ere, inoiz lurraren gainean izan den, den, edo apika noizbait izan daitekeen beste ezeinentzat. Inork ez diezadala, bada, bestelako neurririk hartzearen konturik aipa: artistei ekintza bakoitzeko hamar dolarren zerga jartzerik; norbere bitarteko soilak erabiltzera behartzeko, artista ibiltariei garraio eta alogera laguntzak ukatzerik; gure arte eskoletan *live art* ikasteko bidea ukatzerik, edota haurrek berez duten jokamolde zalapartaria, gerora *live artist* bihur ez daitezen, zuzenarazten saiatzerik; *Teletubbies*ⁱⁱ delakoak, edo *Beefeaterak*, edota Covent Gardenen turistei iruzur egiten dieten alproja doilorrak bistatik kentzerik. Gaizkinahiak eta taldekeriak bazter uzterik; prentsa *live art* maitatzeko hezterik; edo, azkenik, politikariak trebatzerik, erruki puntu bat izan dezaten *live artistenganako*, haiekiko desberdintasun bakarra baitute artistaren fikzioek ez dutela gehienetan egiaren itxurarik izaten.

Niri dagokidanez, nazkatu ederra hartua naiz urte luzeetan gogoeta txepel, indarge eta ameskoiak eskainiaren eskainiaz, eta azkenerako ia erabat etsia ezer burura eramateaz, hona non zoriak proposamen honetara ekarri nauen, zeinak, guztiz berria izaki, bai baitu aurrekoen aldean zerbait trinko eta errealik -gasturik ez eta buruhauste gutxi bailekarke, gainera-, eta zeinak ez baikaitu arriskuan jartzen ezein gobernu erakunderi gaitzi dakion.

Fede ematen dut, bihotz zintzo-zintzoz, ez dudala interes pertsonal txikienik ere ekinbide ezin utzizko hau bultzatzen ahalegintzeko, ez baitut beste akuilurik, munduarentzat eta bertako jendeentzat ongia bilatzea baino, ekonomia globalaren interesak sustatuz, estatuaren aurrekontuen gaineko atezua arinduz, *live artistei* biltokia emanaz eta perbertituei zerbait plazer. Ez dut buruan *live artistik* neure probetxurako proposa dezakedanik; nire atzealdea ikusleak erakartzeko zaharkituegia dago, horrelakoetan has nadin.

.....
COCO FUSCO artista da. New Yorken bizi da. <http://artswire.org/cocofusco>

Testu hau hasiera batean Nottinghamen (Ingalaterra) 1998ko urrian egindako hitzaldi-performance baterako idatzia izan zen.

ITZULTZAILEAREN OHARRAK

¹ *Teletubbies* Britainia Handiko BBC2 telebista kateak 1997ko apirilaz geroztik ematen duen saio baten izena da. Haur txiki-txikientzako saioa da, panpin batzuez egiten dena. Panpin horiek saldu egiten dira eta oso ezagunak dira Britainia Handian. (*Itz. ob.*)

¹ *Beekeeper*-ak Ingalaterra erregeen guardiakoka izan dira 1485az geroztik. Gaur egun, Londreseko Dorreko aurkezpena egiten diete turistei. (*Itz. ob.*)

ⁱ Ingeleseko *live art* edo *live artist* kontzeptuak defingaitzak dira, esparru edo jardun eremu atzemanezina baitute. Hori dela eta, beren horretan utzi ditugu. (*Itz. ob.*)

ⁱⁱ *Teletubbies* Britainia Handiko BBC2 telebista kateak 1997ko apirilaz geroztik ematen duen saio baten izena da. Haur txiki-txikientzako saioa da, panpin batzuez egiten dena. Panpin horiek saldu egiten dira eta oso ezagunak dira Britainia Handian. (*Itz. ob.*)

>>> www.arteleku.net